

Iepa, irakurle! Hauxe duzu zure txokoa, inguruko deialdien berri emateko edo zeure iritzia eta kezak plazaratzeko. Deitu 943 300 222 telefonora edo bidali mezua 943 300 255 faxera edo **barkatu_ama@egunkaria.com** posta elektronikora. **Animatu!**

internet en

irristatzen@egunkaria.com
→ jabi zabala

irristatzen

Musika-artearen sarean

Webgune ofizial eta ez ofizialak promozio bide

Sarean bueltaka, hainbat musika talderen webguneak aurkituko ditugu. Duela urte batzuk ezohikoa zen musikari edo talde batek

webgunea edukitzea, baina egun oso gutxi dira sarean erreferentziaren bat ez dutenak. Ofizialak eta ez ofizialak, ikusgarriak eta eskasak. Denetarik dago eta ez da arraroa aurkitzea webgune ofiziala baino askoz hobe den ez ofiziala, internauta izengabe batek egina.

Esaterako, laster Bilboko Kafe Antzokian joko duen Gigolo Aunts taldearen

webgune bikaina taldearen jarraitzaile batek egiten zuen hasieran eta azkenik *webmaster* ofiziala bihurtu dute berau. Stephane diseinu grafikoa ari zen ikasten Parisen,

duela urtebete pasatxo taldeari buruzko webgunea ezarri zuenean. Ezarri bezain laster kontaktuan jarri ziren Bostondarrak berarekin.

Izan ere, webgune bat egitea kasu honetan diseinatzaile baten promoziorako ere balio duela ikusi dugu; hala ere, argi dago webgune ofiziala izatea ezinbestekoa bilakatu dela taldeentzat. Erreferentzia ezezik, albistegune, zaleen topagune eta denda ere izan daiteke diskoak, kamisetak eta bestelako parafernalia saltzeko.

Musikariaren arte adierazpenaren parte ere bilaka daiteke webgunea, haren munduaren zati inportantea. Esaterako, Wilco taldearen webgunea oso interesgarria da.

Webcast bat iragarrita dute gaurko «zure herrira noiz etorriko begira egon ez zaitezene», diotenez. Baina beste artista baten lana ere aurki dezakegu talde honi lotuta. Izan ere «I Am Trying to Break Your Heart» filma ez da berez taldeak ekoizitakoa, baina taldearen gorabeherak, *Yankee Hotel Foxtrot*



diskoaren grabaketa, disko etxearen aldaketa, kontzertuak eta ibilerak islatzen dituen zuri-beltzeko filma da, 16 milimetrotan grabatuta.

Wilcofilm.com domeinuan ikus dezakegunez, Sam Jones zuzendariak ez du zerikusirik taldearekin eta, beraz, ez dugu promozio lana aurkituko film horretan. Webgunean, QuickTi-

me formatoan grabatutako trailerra eta lagin ikusgarriak ezezik, filmetik at geratu diren pasarteak eta artistekin elkarriketak daude ikusgai. Hori bai, konexio azkarra edo pazientzia handia izatea ezinbestekoak izango dira klipak ikuskatuko baditugu.

Talde baten gaineko webguneak aipatzen jarrita, hemengo baten bat azpimarratu beharko dut. Su Ta Gar taldearena duela urte bi oso ondo hartua izan bazen ere, egun Flash animazio multimedia eta interaktiboak dituztenak dira arrakastatsuenak. Aipagarriak dira PiLT eta Ortophonk taldeek dituzten webguneak, nahiz eta biek Windows ez diren ordenagailuetan ikuskatzeko arazoak eman. Ortophonk-ekoek gure ordenagailuaren pantaila janzteko irudi bitxiak eskaintzen dizkigute, musika laginak, flyerrak, mp3 abestiren bat eta oso marrazki barregarriak. Ikusgarria benetan.

Helbideak:

■ www.gigoloaunts.net ■ www.wilcoworld.net
■ www.wilcofilm.com ■ www.pi-lt.com
■ www.ortophonk.com

Lehiaketak

Pegatinak/Erretereria. Lau Haizetara euskaldunon elkartek Madalene-tarako pegatina edo eranskailu lehiaketa jarri du abian. Lehiaketaren helburua da hizkuntzaren erabileraz ohartarazi, eta hura bultzatzea herriko jaietarako aterako duen eranskailuarekin, euskarazko mezu baten bitartez. Erretererian jaio, bizi, lan egin edo ikasten dutenek har dezakete parte lehiaketan. Lanak Erretereriako 181 posta kutxara bidali behar dira, ekainaren 14a baino lehen. Informazio gehia-

go, 943-340143 telefono zenbakian edo lauhaizetara@topagunea.com helbide elektronikoan.

Erakusketak

Norabide guztiak/ Bilbo. Hamabi euskal artista gazteren lanak ikusgai dira Rekalde aretoan. Hauexek dira artistak: Veva Linaza, Itxaso Dominguez, Mara Reguilon, Iñaki Ria, Ibon Garagarza, Jon Mikel Euba, Jesus Pueio, Lucia Onzain, Miguel Angulo, Pilar Fonseca, Eduardo Sourrouille, Miguel Angel Gaueca. Bizkaiko Foru Aldundiko 1999-2000ko bekadunak izan ziren guztiak. Era-

kusketa ekainaren 30era arte egongo da zabalik.

Kontzertuen historia/ Arrasate. Arrasateko gaztetxeko kontzertuen historia karteletan erakusketa dago gaztetxean. 170 kartel eta hainbat sarrera jaso dituzte erakusketan.

'Kokoteraino nago'/ Bilbo. Norbaitek kexatzeko arrazoiak baditu, Abisalgunean dagoen erakusketak horretarako aukera ematen du. *Kexatu zaitzez* leloa jarri diote *Kokoteraino nago!* erakusketari, jendea bertara joan, eta kexak azal ditzan. Abisalgunean da hori, maiatzaren 24a arte.

Txotxongilo artegintza/ Bera. Corrado Masacci italiarrak berak egindako txotxongiloak erakutsiko ditu maiatzaren 20tik ekainaren 2 arte Berako Kultur Etxean.

Antzerkia

'Ondo esan beharko'/ Araia. Ramon Agirrek *Ondo esan beharko* antzez-lana taularatuko du larunbatean, 20:00etan, Araia zineman.

'Inperfektua izan nahi dut'/ Bera. Doike antzerki taldeak *Inperfektua izan nahi dut* antzez-lana aurkeztuko du bihar, 20:00etan, kultur etxean.

'Ondo esan beharko'/ Bilbo. Ramon Agirrek *Ondo esan beharko* antzez-lana taularatuko du igandean, 20:00etan, Kalderapekon.

El Ciervo Encantado/ Bilbo. Kubako El Ciervo Encantado taldeak *Un elefante ocupa mucho espacio* antzez-lana taularatuko du larunbatean eta igandean, 18:00etan, Bilboko La Fundicion aretoan.

'Teatro sin papeles'/ Gasteiz. * Javi Barandiaranek *Teatro sin papeles* antzez-lana aurkeztuko du igandean, Hala Bedi tabernan.

'Esne-saltzailea eta ginekologoa'/ Ondarroa. Zeani antzerki taldeak *Esne-saltzailea eta ginekologoa* antzez-lana aurkeztuko du igandean, Kafe Antzokian, 19:30ean.

argitalpena



'Ekintza zuzena' aldizkaria.

Ekintza zuzena aldizkari libertarioaren azken zenbakia, udaberri/uda garaikoa duzue hau. Ohi bezala, artikulua mamitsu ugari biltzen du, eta baita ohiko atalak ere. Besteak beste, Euskal Herriak 2002. urte honetan bizi duen egoera politikoa, Bilboko San Frantzisko auzoko arazoak, Bartzelonako gailur ekonomikoa eta haren kontrako ekintzak, sistema polizialaren egitekoak, Baiona-Donostia eurohiria, droga kontsumoa, AHTren kontrako borroakak, Hiesa, eta erditzea eta emakumearen sexualitatea jorratzen dituzten artikulak aurki ditzakezue. Horretaz gain, *Ekintza zuzena* zuzenean Jon Etxeandia eta Juan Antonio Olagorta preso ohiak elkarriketatu dituzte *Kartzelako lanak* liburuari buruz gehiago jakin nahian. Era berean, liburu, argitalpen eta musika ekoizpen ugariaren aipamenak azaltzen dira aldizkarian. Umorea ere ez da falta, eta erdiko orrialdeetan hainbat albiste eta testu umoretsu jaso dituzte. Azkenik, Argentinari buruzko liburuxka argitaratu du aldizkariarekin batera *Ekintza zuzena*.

'Ondo esan beharko'/ Gasteiz. Ramon Agirrek *Ondo esan beharko* antzez-lana taularatuko du asteartean, Parral tabernan.

'Aingira-kumak'/ Ondarroa. *Aingira-kumak* antzez-lana jokatu dute gazteen antzerki tailerrean aritutako lagunek astelehenean (11:00etan) eta asteartean (11:00etan eta 20:30ean), Kafe Antzokian.

Zinema

'Los niños de Rusia'/ Lasarte-Oria. *Los niños de Rusia* filma emango dute gaur, Manuel Lekuona kultur etxean, 22:00etan.

'Woyzek'/ Azkoitia. *Woyzek* (Werner Herzog) filma ikusteko aukera izango da igandean, 20:30ean, Mataderoan.

Bertsolaritza

Bertso saioa/ Bilbo. Udaberriko bertso saioa egingo da larunbatean, 23:00etan, Kafe Antzokian. Arkaitz Estiballes, Jon Eizmendi, Jurgi Gariagoitia eta Oihana Bartzarri ariko dira.

Hitzaldia

Iruñeko bitxikeriak/ Iruñea. Kike Diez de Ultzurrunek Iruñeko bitxikeriak kontatuko ditu gaur, 18:00etara, Arturo Campion euskaltegian.

Su Ta Gar/ Barañain. Su Ta Gar taldeko kideek kantuak nola sortzen diren azalduko dute Barañaingo Haizea kultur elkartearen, gaur, 19:00etan.

Bestelakoak

'Bitartean heldu eskutik'/ Lasarte-Oria. Kirmen Uribe olerki errezeptaldia eskainiko du bihar, 22:00etan, Jalgi kafe antzokian., musika eta margoak lagun dituela.

MATXITXA
MUSIKA ERAGINTZA MANAGEMENT

su ta gar-mare-a-berri txarrak
π.l.t.-ekon-buitraker
dank-ost-anje duhalde
zsa mays-flitter-narco
habeas corpus-el combo linga
freak XXI-eskorzo
deshechos (hechos contra el decoro)

Tels. 948 18 09 18 - 696 462 411
E-mail: management@matxitxa.com